

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela  
Maite Zubia Atxaga  
Josu Miren Ezkurdia Santamaria  
Maite Uribe Beristain  
Aitor Zubizarreta Alegria  
Aintzane Agiriano Errasti  
Edorta Barandiaran Garcia  
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza  
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2017ko apirilaren 27an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ezingo zela etorri jakinarazi zuen Nestor Aranak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 27 de abril de 2017 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. Excusan su asistencia Nestor Arana.

### **1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2017ko apirilaren 24ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da. 2. eta 3. kreditu aldaketen espedienteak onartzeko erabakien hitzez hitzezko kopia eman da.

### **2.- GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIKO LANKIDETZA PROGRAMAREN OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Udalbatzarkide guztiek ezagutzen dituzte Integrazio eta Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak, onartu daitezten, proposatzen dituen oinarriak.

Bozkatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI du:

**Lehenengoa.-** GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIKO LANKIDETZA PROGRAMA ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

### **3.- ADIKZIOAK TRATATZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Udalbatzarkide guztiek ezagutzen dituzte Integrazio eta Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak, onartu daitezten, proposatzen dituen oinarriak.

Bozkatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI du:

**Lehenengoa.-** ADIKZIOAK TRATATZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

#### **4. GIZARTE ZERBITZUETAN DIHARDUTEN ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Integrazio eta Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Beraien jarduera gizarte zerbitzuetan garatzen duten elkarteentzako diru laguntzak emateko oinarriak onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

#### **5.- HAUR ESKOLAKO UDAL ZERBITZUA (0-3 URTE, LEHEN HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOA) KUDEATZEKO KONTRATUA. ZERBITZUA ESLEITZEKO ETA**

## **BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN ETA TEKNIKOEN AGIRIA ONARTZEKO PROZEDURA DEITZEA.**

2013ko uztailaren 23an egindako Udaltzarraren erabakiz ARIZMENDI KOOP. E. enpresari esleitu zitzaion Haur Eskolako Udal Zerbitzua (0-3 urte, lehen hezkuntzako lehenengo zikloa) kudeatzeko kontratua.

Administrazio baldintza agiriaren arabera, kontratuaren indarraldia datorren abuztuaren 31n amaitzen da.

Zerbitzuaren emakida prozedura irekiz berriz emateko esleipena arautuko duten baldintza ekonomiko-administratiboak eta baldintza teknikoak egin dituzte zerbitzu teknikoek.

Kultura batzorde informatzaileak proposatutakoa ezagututa, bozketa egin da eta, udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udaltzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** 2017ko abuztuaren 31n amaitutzat jotzea 2013ko ekainaren 23an Udaltzarrak erabakitakoaren arabera ARIZMENDI KOOP. E. enpresari esleitutako Haur Eskolako Udal Zerbitzua (0-3 urte, lehen hezkuntzako lehenengo zikloa) kudeatzeko kontratua.

**Bigarrena.-** Haur Eskolako (0-3 urte) Udal Zerbitzuaren kudeaketa esleitzeko prozedura irekia deitzea. Zerbitzua arautzen duen erregelamenduaren arabera egin beharko da kudeaketa.

**Hirugarrena.-** 4.896,66 euroko gastua baimentzea 0400.227.323.2017 partidaren kontura, 2017ko irailaren 1a 2017ko abenduaren 31ra arteko lizitazio aurrekontuari dagokiona.

**Laugarrena.-** Zerbitzu publikoaren tarifak onartzea. Tarifa horiek baimendutako prezio izaera izango dute.

## **6.- ESKORIATZAN GARATUKO DIREN KULTUR PROGRAMA ETA JARDUERETARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udaltzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzan garatuko diren kultur programa eta jardueretarako diru laguntzak emateko oinarriak onartzea.

**Bigarrenena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrenena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrenena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

## **7.- GOROSARRI IZENEZ EZAGUTZEN DEN BIDEA OINEZKOENTZAT BAKARRIK MUGATZEKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOEI BURUZKO ERABAKIA.**

Udalbatzarrak, 2017ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, besteak beste, Gorosarri izenez ezagutzen den bidearen nondik norakoa onartzea erabaki zuen udal zerbitzu teknikoek egindako plano deskribatzailean jasota bezala, non xehetasunez azaltzen den ibilbide osoa.

Era berean, eta bide horretara egon den sarbidearen ezaugarriak kontuan izanik, bide horren erabilera oinezkoentzat bakarrik MUGATZEA erabaki zen.

Erabaki horren aurka, eta zehazki, bidearen ERABILERAREN ETA ZABALERAREN aurka, ondorengo berraztertze errekurtsuak aurkeztu dira:

*1. ZARIMUTZEKO AUZO ALKATEAK, 2017ko otsailaren 24an, MUITXU, Zarimutzeko Bizilagunen Elkartearen izenean eta ordezkartzan (sarrera erregistroko zenbakia: 357).*

*Alegazioaren edukia:*

*Eskatzen du bide publikoaren erabilera ez mugatzea oinezkoentzat bakarrik eta nekazaritza eta baso makineria pasatzeko behar besteko zabalera izatea.*

*2. Javier Villar Otaduy jaunak, 2017ko otsailaren 27an (sarrera erregistroko zenbakia: 368).*

*Alegazioaren edukia:*

*Alegazioaren edukia:*

*Eskatzen du ez mugatzea bide publikoaren erabilera, bertatik pasatzea libre utziz, beti izan den bezala, eta 5,00 m-ko zabalera ematea bideari.*

3. MAZMELAKO AUZO ALKATEAK, 2017ko otsailaren 27an, BASAURIA Mazmelako Bizilagunen Elkartearen izenean (sarrera erregistroko zenbakia: 369).

Alegazioaren edukia:

*Eskatzen du ez mugatzea bide publikoaren erabilera, bertatik pasatzea libre utziz, beti izan den bezala, eta jatorrian zuen 5,00 m-ko zabalera izatea.*

Errekurtso horien edukia aztertuta, Hirigintza eta Mugikortasun Batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, eta bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** MUITXU Zarimutzeko Bizilagunen Elkarteak eta BASAURIA Mazmelako Bizilagunen Elkarteak jarritako berraztertze errekurtsoei lehentasuna ematea Javier Villar Otaduy jaunak jarritakoaren aurretik, lehenengo bi horiek talde eskaerak direlako, ez partikular batenak, eta elizateetako beharrei eta interes komunari erantzuten dietelako, bertako bizilagunek hori adierazi baitute.

**Bigarrena.-** BAIMENA ematea bide hori oinezkoentzat ez ezik nekazaritza-makineria igarotzeko ere erabiltzeko, eta ondorioz, eta nekazaritzarako erabili ahal izateko, bidearen zabalera 4,00 m-tan FINKATZEA.

#### **8.- KREDITUAK ALDATZEKO 4. ESPEDIENTEA: KREDITU GEHIKUNTZA.**

Kredituak aldatzeko 4. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, bototara jarri da proposamena.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 4. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.622.933.00.01 2017	SAN PEDRO 9 ERAIKUNTZA:IGOGAILUA	15.538,00	50.462,00	66.000,00
1 0100.623.153.40.01 2017	TRESNAK ETA ERREMINTAK	0,00	5.230,00	5.230,00
1 0100.421.410.00.01 2017	APORTAZIOA:DEBAGOIENeko LANDA GARAPEN	9.501,72	2.375,43	11.877,15
1 0100.627.161.00.01 2017	UR SAREA	0,00	49.586,78	49.586,78
1 0100.622.342.20.01 2017	KIROLDEGIA	10.000,00	10.000,00	20.000,00
1 0100.601.153.30.03 2017	PARKING PUBLIKOA EGOKITZEA	0,00	50.000,00	50.000,00
1 0400.481.326.30.01 2017	DIRU LAGUNTZA:HUEZI.40 URTEURRENA	0,00	3.000,00	3.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	35.039,72	170.654,21	205.693,93

d.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2017	DIRUZAINTZAKO	170.654,21

		GERAKINA:GASTU OROKORRETARAKO	
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>170.654,2</b>

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

**9.- 5. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA (kreditu-transferentzia modalitatea).**

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 5. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaien araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 5. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako	Murrizketa	Amaierako
---------	-------	-----------	------------	-----------



		<b> kreditua</b>		<b> kreditua</b>
1 0400.481.334.00.01 2017	DIRU LAGUNTZA:KULTURA	20.000,00	12.000,00	8.000,00
1 0400.481.334.30.01 2017	DIRU LAGUNTZA:ATXORROTZ KULTUR ELKARTEA	3.000,00	3.000,00	0,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>23.000,00</b>	<b>15.000,00</b>	<b>8.000,00</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

<b>Partida (*)</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gehikuntza</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
1 0400.481.341.20.01 2017	DIRU LAGUNTZA: ESKORIA.KIROL ELKARTE	26.000,00	1.156,00	27.156,00
1 0400.481.324.00.02 2017	DIRU LAGUNTZA:ARIZMENDI	0,00	8.000,00	8.000,00
1 0300.481.337.10.01 2017	DIRU LAGUNTZA:JUBILATUEN ELKARTEA	3.000,00	800,00	3.800,00
1 0400.226.334.30.08 2017	EKINTZAK:ERREKAN GORA	14.956,00	5.044,00	20.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>43.956,00</b>	<b>15.000,00</b>	<b>58.956,00</b>

Aurrekontu partida berriak sortu ahal izango dira.

## **10.- 2016-2019 DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA.**

Udalbatzarrak, 2017ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa eguneratzeko erabakia hartu zuen plan hori 2017ko ekitaldiko aurrekontuari egokitzeke.

Eguneraketa onartuta, komenigarria ikusi da planaren eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea lerro estrategikoetako diru laguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko. Aldaketa horiek honako hauek dira:

### **A- ONDORENGO PROGRAMAK SORTZEA:**

- PROGRAMA: Eskoriatzako Kirol Elkartea- GABEZ TAKARRADA 2016, 1.156 euroko kostearekin.
- PROGRAMA: Arizmendi ikastola kooperatibarekin hitzarmena- MANTENTZE GASTUAK-, 8.000 euroko kostearekin.
- PROGRAMA: HUEZIREN 40. URTEURRENA, 3.000 euroko kostearekin.
- PROGRAMA: DENDEN ERROTULUAK ETA IRUDI KORPORATIBOA, 1.000 euroko kostearekin.

### **B- ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTEA HANDITZEA**

- PROGRAMA: DIRU LAGUNTZA JOSE ARANA PATRONATUARI- kostea 8.000 eurotan handitzea.
- PROGRAMA: Diru laguntza Olazar jubilatutako elkarteari.- kostea 800 eurotan handitzea.

### **C- ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTEA MURRIZTEA**

PROGRAMA: Eskoriatzan egingo diren programa eta kultur jardueretarako diru laguntzak. - 12.000 eurotan murriztea.

PROGRAMA: MERKATARITZA. – 1.000 eurotan murriztea.

**D.- ONDORENGO PROGRAMA KENTZEA:**

PROGRAMA: ATXORROTX Kultur Elkartea

Aurrez esandakoarengatik, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, indarrean dagoen 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa ondoren adierazitako moduan aldatzea erabaki du Udalbatzarrak:

**LEHENENGOA.- ONDORENGO PROGRAMAK SORTZEA:**

**2. LERRO ESTRATEGIKOA: KIROL SUSTAPENA.**

**E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Eskoriatzako Kirol Elkartea- GABEZ TAKARRADA 2016**

*HARTZAILEA: Eskoriatza Kirol Elkartea.*

*HELBURUA: Eskoriatzako Kirol Elkarteari diruz laguntzea kirol federatua sustatzeko ohiko jarduerak egiteko.*

*LORTU GURA DENA: GABEZ TAKARRADAN jarduerarekin 2016. urtean izandako defizita finantzatzea.*

*DIRU LAGUNTZA MOTA: izenduna*

*2017ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 1.156 euro.*

*FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.20.01*

**7. LERRO ESTRATEGIKOA: HEZKUNTZA SUSTATZEA**

**C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Arizmendi ikastola kooperatibarekin hitzarmena.**

*HARTZAILEA: ARIZMENDI ikastola.*

*HELBURUA: Arizmendi ikastolari diru laguntza mantentze-gastuei aurre egiteko.*

*LORTU GURA DENA: Arizmendi ikastolaren azpiegituren mantentze-lanetan laguntzea.*

*DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna.*

*2017ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 8.000 euro.*

*FINANTZIAZIOA: 0400.481.324.00.02 partida*

**D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: HUHEZIREN 40. URTEURRENA**

*HARTZAILEA: MONDRAGON UNIBERSITATEA*

*HELBURUA: Unibertsitateak sortu zeneko 40. urteurrena ospatzeko egindako ez ohiko jarduerak finantzatzen laguntzea.*

*LORTU GURA DENA: Unibertsitateak proposatutako jarduerak egingo direla bermatzea.*

*DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna.*

*2017ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 3.000 euro.*

*FINANTZIAZIOA: 0400.481.326.30.01 partida*

**8. LERRO ESTRATEGIKOA: SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA SOZIALA**

**D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: DENDEN ERROTULUAK ETA IRUDI KORPORATIBOA**

*HARTZAILEAK: Eskoriatzako merkatariak.*

*HELBURUA: Herriko merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan errotuluak jartzeko eta establezimendu horien irudi korporatiboa hobetzeko diru laguntzak ematea.*

*LORTU GURA DENA: Eskoriatzako merkataritza eta ostalaritza hobetzea, sustatzea eta dinamizatzea.*

*DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.*

*2017ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 1.000 euro.*

*FINANTZIAZIOA: 0500.481.431.00.01*

**BIGARRENA.- - ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTEA HANDITZEA:**

**3. LERRO ESTRATEGIKOA: GIZARTE EKINTZA**

*A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Diru laguntza Olazar jubilatutako elkarteari.*

*HARTZAILEA: Olazar jubilatutako elkarteak.*

*HELBURUA: Olazar jubilatutako elkarteari diru laguntzea beraien ohiko jarduerak egiteko.*

*LORTU GURA DENA: Eskoriatzako nagusien bizi kalitatea hobetzea eta herrian parte hartze handiago izan dezatela sustatzea.*

*DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna.*

*2017ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 3.800 euro.*

*FINANTZIAZIOA: 0300.481.337.10.01 partida*

*H) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: JOSE ARANA PATRONATUARI DIRU LAGUNTZA*

*HARTZAILEA: Jose Arana patronatuaren fundazioa.*

*HELBURUA: Egoitzan egingo diren obrak finantzatzea.*

*LORTU GURA DENA: Jose Arana fundazioak ostatu alternatiboa eskaintzen die, inolako irabazi asmorik gabe, zenbait gorabeherengatik beraien etxeetan bizitzen jarraitu ezin duten edo jarraitzerik nahi ez duten adineko pertsoneri. Eta, Eskoriatzako Udalak bereziki garrantzitsutzat jotzen du eskoriatzarren ongizaterako fundazioak bere jarduerarekin jarraitzea.*

*DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna.*

*2017ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 16.000 euro.*

*FINANTZIAZIOA: 0300.781.231.90.01 eta 0300.781.231.90.01.16 partidak*

**HIRUGARRENA- ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTEA MURRIZTEA:**

**1. LERRO ESTRATEGIKOA: KULTUR DINAMIZAZIOA.**

**A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA:** *Eskoriatzan egingo diren programa eta kultur jardueretarako diru laguntzak.*

*HARTZAILEAK: Deialdia arautzen duten oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.*

*HELBURUA: Urtean zehar Eskoriatzan egiten diren kultur programa eta jardueri diruz laguntzea.*

*LORTU GURA DENA: Herrian kalitatezko kultur jarduerak eskaintzea eta herritarren eta kultur elkarten parte hartzea eta lankidetzaren sustatzea.*

*DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.*

2017ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 5.500 euro.

FINANTZIAZIOA 0400.481.334.00.01 partida

## **8. LERRO ESTRATEGIKOA: SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA SOZIALA**

### **A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: MERKATARITZA**

*HARTZAILEAK: Deialdiko oinarrietako baldintzak betetzen dituzten eta 2017ko urtarrilaren 1etik Eskoriatzako hiri guneko lokal huts batean merkataritza edo zerbitzu proiektu berri bat sustatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.*

*HELBURUA: Merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko lokal hutsak alokatzeko edo erosteko diru laguntzak.*

*LORTU GURA DENA: Eskoriatzan merkataritza eta kontsumoa biziberritzeko PERCOren ekintza plana betetzea. (PERCOREN 1-ARDATZEKO JARDUERA PLANA)*

*DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.*

2017ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 4.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0500.481.431.00.01 partida

## **LAUGARRENA- ONDORENGO PROGRAMAK KENTZEA**

### **1. LERRO ESTRATEGIKOA: KULTUR DINAMIZAZIOA.**

#### **F) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ATXORROTX Kultur Elkarte**

HARTZAILEA: Atxorrotz Kultur Elkarte

HELBURUAK: Atxorrotz Kultur Elkarteari diruz laguntzea urtean zehar antolatzen dituen kultur jarduerak sortutako gastuak finantzatzeko.

LORTU GURA DENA: Kultura, ohiturak eta euskara sustatzea eta zabaltzea. Jarduerak egitea euskara presente egon dadin eguneroko bizitzaren arlo guztietan.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna.

2017ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 3.000

FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.30.01 partida

### **11.- AURREKO URTEETAN ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturik egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboak eta bertan jasotako diru kopuruegatik:

- Preskribatuta egoteagatik kobratzeke dauden eskubideen baja: 4.972,48 €.

16/01/01 etik 16/03/31 BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK							
IZENA	KONTZEPTUA	URTEA	LIKIDAZIOA	KUOTA	ERREKARGOA	GUZTIRA	ZERGATIA
BEREZKO INSTALACIONES,S.L.	OHZ:HIRILURRA	2011	3U 5107170 110W	30,04	6,00	36,04	PREZKRIZIOA.GEA
GESTORIA LEINTZ S L	JARDUERA ENPR.	2011	31 A026807 420P	417,82	83,56	501,38	PREZKRIZIOA.GEA
ARANA ISASMENDI NICOLASA	OHZ:LANDALURRA	2011	3R 0339251 1101	29,65	5,93	35,58	PREZKRIZIOA.GEA
<b>GUZTIRA</b>				<b>477,51</b>	<b>95,49</b>	<b>573,00</b>	



- Bidezkoak ez izateagatik kobratzeke dauden eskubideen baja: 3.584,45 €

KONTZEP/EPEA/ZENBAKIA	ZENBATEKOA	ZERGADUNA	ZERGATIA
028/2016/81/49 ICIO 028/2015/81/63 ICIO	3.225,19 359,26	FAGOR EDERLAN, S.COOP. FAGOR EDERLAN, S.COOP.	OBRA EZ DA EGIN OBRA EZ DA EGIN
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.584,45</b>		

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzailletza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoari beste arrazoiren batzuegatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

**12.- INVERSIONES SALGEL S.L. ETA ELENE VIOLETA RUSO ANDREAREN ARTEKO SALEROSKETA KONTRATUARI BURUZ ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIA BERRESTEA.**

Bertaratutako guztiak jakinaren gainean jarri dira Olaetako eraikinen atzealdean dagoen mendi-hegala egonkortzeko obrak exekutatzeko agindua dela-eta Inversiones Salgel S.L. enpresaren aurka tramitatzen ari den espedientean jasotako aurrekariei buruz.

2017ko apirilaren 3ko 345. Alkate erabakia ikusi da, besteak beste, 2016ko abuztuaren 17an Salgel, S.L. eta Elena Violea Rusoren artean egindako salerosketa baliogabetzat jo dadin lehen auzialdiko dagokion epaitegian judizio arrunteko demanda jartzea erabaki zuena.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak erabaki du 2017ko apirilaren 3an Alkateak hartutako 345. zenbakiko erabakia berrestea.

**13.- MATERIAL HORNIKETA KONTRATATZEA BADIHARDUGURI.**

Kultura, Kirolak eta Euskera batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA:** KANTU ETA JOLASEN LIBURXKA eta DVDa egiteko arduraren BADIHARDUGU aisialdi elkarteari esleitzea honako baldintzetan:

**Iraupena:** Zerbitzua 2017ko abendurako eginda egongo da eta 2018ko urtarriletik aurrera materialaren banaketa egingo da.

**Prezioa eta ordainketa epeak:** Zerbitzuaren prezio osoa 1.791,00 eurokoa izango da (Bez salbuetsia). Kontratatzeko den zerbitzuaren ordainketa, bi aurrekonturen kontura egitea, hau da zerbitzuaren %50a (895,50 €) 2017. urtean eta beste %50a (895,50 €), berriz, 2018. urtean. Zerbitzuen fakturazioa enpresarekin adostuko da, beti ere, urte bakoitzeko zerbitzua bukatu ondoren bideratuko dena.

**Elkarlana:** Egitasmo honetan beste 3 udalek parte-hartuko dute: Aretxabaleta, Elgoibar eta Eibar. Elkarlanean adostu dira lan teknikoari dagozkion xehetasun guztiak, udal bakoitzeko euskera teknikarien bitartez. Sor daitezkeen gora-beherak ere lan-taldean adostu eta ekarriko dira udaletara.

**Esleitzen den zerbitzuak barne biltzen dituenak:**

Ahotsak egitasmoan jasotako adinekoren Jolas eta Kantuak batzen dituzten bideoak eta herriko ikastetxeetako haurrek abesten dituztenak batuko duen DVDa.

DVD horretan agertzen diren Jolas eta Kantuen hitzekin liburuxka.

DVD eta Liburuxka hori 2017. urtean egingo den Durangoko Azokarako editatuta egotea.

**Baldintza teknikoak:** Kontratu honen xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute. Beraz, kontratuaren xedea betetzeko herritarrekin eta udalarekin sortzen diren harreman guztiak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) euskara hutsean izango dira. Gainera, proiektua gauzatzeko Topaguneak kontratatuko dituen langileek, proiektuak euskaraz gauzatzeko behar besteko hizkuntza maila izan beharko dute.

**BIGARRENA:** 895,50 euroko gastua aurtengo aurrekontuaren 0400.226.335.00.08 partidaren kontu onartzea eta gainontzeko, hau da, 895,50 €, 2018. urteko aurrekontuaren kontu.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 18:45ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

2017/04/27

**Ez Ohiko Osoko Bilkura**

Pleno extraordinario

### **1.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 24 de abril de 2017 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas. De las Resoluciones relativas a la aprobación de los expedientes de modificación de créditos N° 2 y N°3 se da copia literal.

### **2.-APROBACIÓN INICIAL DE LAS BASES DEL PROGRAMA DE COOPERACIÓN CON LOS PAISES EN VÍAS DE DESARROLLO.**

Todos los presentes conocen la propuesta de Bases cuya aprobación se propone desde la Comisión Informativa de Integración y Servicios Sociales.

Previa votación, el pleno por unanimidad ACUERDA:

**Primero:** Aprobar las BASES PARA LA CONCESION DE SUBVENCIONES DENTRO DEL PROGRAMA DE COOPERACIÓN CON LOS PAISES EN VÍAS DE DESARROLLO .

**Segundo:** Someter dichas BASES a información pública por un periodo de 30 días hábiles , contados a partir de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para que pueda ser examinadas y presentar las reclamaciones y sugerencias que se estimen pertinentes.

**Tercero:** De no producirse sugerencias o reclamaciones dichas BASES se entenderán definitivamente aprobadas sin necesidad de nuevo acuerdo.

**Cuarto:** Facultar al Sr. Alcalde para que, aprobadas dichas BASES convoque las ayudas por las mismas reguladas y autorice el gasto correspondiente.

### **3.- APROBACIÓN INICIAL DE LAS BASES QUE REGULAN LAS AYUDAS ECONÓMICAS PARA TRATAMIENTO DE ADICCIONES.**

Todos los presentes conocen la propuesta de Bases cuya aprobación se propone desde la Comisión Informativa de Integración y Servicios Sociales.

Previa votación, el pleno por unanimidad ACUERDA:

**Primero:** Aprobar las BASES QUE REGULAN LAS AYUDAS ECONÓMICAS PARA TRATAMIENTO DE ADICCIONES

**Segundo:** Someter dichas BASES a información pública por un periodo de 30 días hábiles , contados a partir de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para que pueda ser examinadas y presentar las reclamaciones y sugerencias que se estimen pertinentes.

**Tercero:** De no producirse sugerencias o reclamaciones dichas BASES se entenderán definitivamente aprobadas sin necesidad de nuevo acuerdo.

